Alea

Beñat Sarasola

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2009 Beñat Sarasola
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2009ko martxoa
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

—1—

1

eta zer goizeko bederatzietan
euria berriz euri
ari
arrastaka joan diren hodeiak
hodeiak, hodeiak, hodeiak
                Buffalo bill udal igerilekuan

buffalo bill errepikaturik
                has defunct
BUFFALO
bonbilla ekologikoen aldeko
eta hidrokarburozko autobusak
                esate baterako
autobusak
bihar bost lapur eta anbulantziak
                eta zer euria
differance DIFFERENCE
edo nola izan zoriontsu atzo   bart
ziren

oasiak existitzen diren arren
qué hacer!
hacer **qué**?
tximistek ote duten existitzeko gogorik
entiéndalo mujer,
somos decentes, honrados Somos

Buffalo defunct has

nahiago dituzun sagarrak
zerbait esateagatik
esan Edipo sindromea
Patua
zer **den** panpina bat
                beraientzat
PUNK

oinaztar edo ganboatar
ala scooter beltz alper
per euskal herria
militarra
Peter Punk’s defunct

hitzak akabatzen badira
ez zarete ja zoriontsu
biziko dira
berbarik gabe
atzera
galtzen bazara hiri urrun batean
postalei so egin
Dutty free shop
PETER BILL is
punk
Nahiz kuttun naiz Verdun
Pan
PANG!!
Pangé

edozer
eror
daiteke
erortzeagatik
wwIx
txori tximinia batean kiskali zen
hil eta bizi eta gal
jauna nola garbitzen dituzu
arropak? pang

eta
bi gauza oroit eta hiru
demagun itaundu ala FUNDACIÓN buffalo punk
ayudas institucionales por doquier

dira pigeonsjustlikethat
like that hori eta tan
izateko ziren
goizeko tabernan maiakovski
agian aztluariren alde
campanilla eta garfio kapitaina Larrua Jotzen
AGIAN

punK petEr puNk

2

Zein **xaboi** erabiltzen duzu *jauna*?
eta errepideetan usaina
pintura eta alkitrana
jaiotzeko dago hainbeste gauza
jende hainbeste
zertarako gauden verf

BARRABUM
ah likits zara
verfbarrabum!
eguzkia krisian dago adibidez
ez daki nola jokatu verfbarrabum
hiltzeko ere horrenbeste neke
zeren
pentsa boligrafo hautsiak
ritmo ritmo de la noche
eta orrazkeren zergatiak
punk
edo nun dago non
NOR
buffalo bill
Peter Punk
are pigeonslikethat

begi txiki
argitasun zen
esnatzeak duen kolorerik lako
edo
BUTTERFLIES on sale!
Butter **&** bread
hasta**pen** nazionalerako PENak

eta gero bi saltoki eta dira
sonbreiruen kontra
salmos olvidados etzi
zer da ¿palimpsestos y
mariposas?
¿tximeletak!
hormigas atómicas!
koadroak lokarriak heldu zarete
zarete tximeletak on sale
monogatari bi muxu
ari dela saiatzen baina ezin du
ordena apur bat
two
three
four
five
batbihirulaubost pigeonsjustlikethat
argi ibili
jausi gabe ahal bada

jendea
hil
da
erorita

berriz ere

butterfly’s defunct
maiakovski supermerkatuan
astelehenetan joaten dira
¡uste duzu eguraldi ona egiten du!
baina arrantzaleak
poliziak edo
izarrak
ero
familia arazoak
breton hitz egin
txakurrak katuak txorimaloak nahiz
eta
etxera ailegatzean
emaztea ikusi zuen semearekin
larrutan
eta zer egiten duzu
haurdun geratuko zara
ez dugu dirurik beste haur
lau mantentzeko
nola eraman eskolara
nola erosi liburuak

nola pagatu ileapaindegia
non opari jostailua peter punk
telefono kabina qué vergüenza
ene
francamente
maiakovski’s DEFUNCT?

3

neska *bat* zoriontsu
nirekin erraza da
eta zer esan nahi duzu
paul verlaine
doremifasol verf ¿barrabum?
babarrun ez da DRUM!
baina gaueko bederatziak
bizitza berriz errepikatuko balitz
bonbero izatea denbora **librean**
tourist remember
zenbat uso akabatu zikoina suizidak
non erori zen zehazki
demagun buffalo bill

punk has defunct

hamar ordu *lo*
tximeletak a la brasa
laguntzeko edo itsasontziak
baratuak agian ez dute federik
honezkero bill enterratu dute
butterflies eta arroza
pigeonsjustlikethat on sale **on sale**
nolaz eta hegazkinak gurutzatu zerua
sei ordu eta erdi GALDUTA
dena
bolbora miazkatu kristala irentsi
tximeletak bortxa eta berrogeita hamabi
zer egingo duten nola bizi

ahal bada
entzun inoiz *bihotzik*
merkea bada hainbeste gauza
otoitz da udaberrian
ez gaitu harritzen
EVANDER
adierazi ezazu zure ezinegona zure amodio
eza dira gurpil berriak
gabonak gabonak hau zoriona

ritmo ritmo de la noche

son gente de bien seria serena
garbi daukate www
adibidez egunon
zenbat noiz gorputz bat zauriak
olentzero suizidatu da
has defunct **olentzero**
berriz ere triste
peter pan unatuta
hegan egin ezinda alfer nagi
los pájaros del río cantan
contra el frío
buffalo bill
suizidatu da
peter punk
has defunct

buffalo bill’s
defunct

—2—

A)

John wilkinson ikusi zuen
bosgarren abenidan
mundua desafiatzen ari zen
eta egin al dioten autopsiarik
zubipeko gorpuari
arroparik gabe bortxatze
arrastorik bat ere ez
agian musu batzuk masailean maite
zintudan so much
gehienez ere usteltze prozesu nabarian
ehuneko hirurogeita hamar
eman dezagun john wilkinson
urdin kolorez kantatzen
eta beraz banketxe batean sartu zen
igo egin al da burtsa permititzen al
dira orain homosexualean arteko
dibortzioak pentsatu zuen zer egiten
zuen han hil egin al da john wilkinson
topatu dute bere gorpua jantzita
lehor usteldu gabe ea

B)

argia piztu eta berriz ere
oker daude galdu dute jada
ez ditu inork aintzat hartuko
apal desordenatuak arropa
kassetteak side b nola saldu
merezi dugula agian leihoak
irekitzea komeniko litzateke
eta zer gaueko bederatzietan
aterkiak ireki dira kalean aldi
berean simultaneoki urtegiak
hustu ziren bat-batean
ez da argi falta ez dira itsu
baina ireki ditzatela leihoak

C)

hilketa maximsen
eskandalua odola a positibo
b negatibo gora
indecision time galtzeko
ez dugu deus baina libertatean
sinesten hasteko gertu daude
prostitutek beste aldera begiratu
dute ez dute konpromiso politikorik
aberrian ez dute sinesten
poliziak euren lanean
benetan
honek ez dauka erremediorik
hogeita hamazazpi urteko
euskaldun zuria
donald ahateari ahaztu egin
zaizkio txisteak argiak piztu dira
zerrautsa zabaldu dute
lurrean

Ç)

kea sartu da hirian
nominalistak pozik agertu
dira begira begira errealitateak
arrazoia ematen digu
lehenago edo beranduago
gure printzipioak galduko
ditugu ez da trauma bat
telebista katez aldatu nixan turbo
begiak gorritu zaizkio
michael osborneri systane errezetatu
diote non guardiako farmazia gertuena
udaletxera ailegatu kea da pentsa
dezala zerbait ministerioak militarren
babesa adibidez batzuetan beharrezkoak
dira arren zuhurtzia razionalitatea
martzianoek sikiera grazia dute
baina hau
taxistek irratiak itzali dituzte hiriko
argiak non dago bentilazio sistema

zenbateko garantia zuen
hiri honek

D)

txímino bat zerbeza edaten
eta eman diezaiotela
paperezko poltsa bat behintzat edo
makarra batek galdu egiten du flipper
bankuko gorbataduna garaile
berriro ere aldiriko ferianteek
euren nahasmena euren lan baldintza
penagarriak euren noraeza adierazi
dute jean françois lyotard la condition
postmoderne erakutsi dute begira
kale garbitzaileak etorri dira fcc
fluctuaciones bursátiles pelotazos
emazkidazu bi bat niretzat
ene pertxeroak kendu dituzte udarako
oh my god my god
non dago nire pertxa jean françois
panterak hozka egin zion lehoiari
hierarkia hautsi zen den dena
den da baztergarri orain

elkartasuna adieraziko dute alferrik sinets ezazu nahi duzuna sentitzen ahal dena dute

E)

umeak dibertitu egiten dira
telebistari begira koloreak
apreziatu sexua deskubritzeko
modu bat presentadora titihandiak
konkursanteak kaskoak dirurik
irabazten da leku horietan
dena fartsa bat ez ote
joera suizida nabariak errealitatea
eta fikzioa ez dira
bereizten gaur egun dena da bat
ezin gaituzte klasifikatu ez
izan erredukzionistak
inor baino listoagoak
gara nork esan zuen garai
zaharrak hobeak zirela umeek
kaniketara jolasten zuten

F)

ur tanta bat mugitu egin da
ezustean inolako lege fisikori men
egin gabe grabitate indarra adibidez
ez dakite nondik heldu gaur egun
last fm bazter hauetan ez al dago
gasolindegirik ez derrigorrez
shell errebista pornoak hardcore
salgai gozokiak alkohola azkeneko
taberna itxi dutenentzat dirección
zaragoza bide erdia epel
zahartzen ari gara joan uste
baino bizkorrago isuna nire kontu
baina zahartzaroa ez mesedez
hori ez ordubete unibertsitatea
corte ingles ondobidean zortzietan
eguzkia behean da beraiek bezala
sweet home berriz ere errutinak
salbaturik carrer consell de cent
cent vint i vuit bonna

G)

teilatuan antena berriak
jarriko dituzte telefonikakoak
deitu du telefonoz mirenek
nola esaten da maite zaitut zure
hizkuntzan triste bizi al dira
hiztun gehienek zalantza egiten
dute aldaketa hoberako ote den
ez al da amarru komertzial
bat gehiago ohituta gaudela bai
baina ez gara hain tontoak ere
karl lagerfeldek andy
warholek marcel duchamp
plagiatzen duela bagenekien
jendea gutxietsi egiten da gaur
egun teknokratak alderdietan
mintzaira klaseak eman eta
demagun bermatu egoera herria
bakea eta zertarako ez du ulertzen
benetan mirenek harridura agertu
du antena berri bat zertarako

H)

liburua irakurtzeari ekin
dio pelikanoek alde egin
dute zoologikotik ekologistek
hori ez da bide zuzena zuen
kontra bihurtuko da gauzak
zentzuz egin behar dira fede
ona al dago sopa beroa urtarrilaren
zortzian eskertzen da oro
har baina hogei gradutan ekologistek
ez dute deus ulertzen polo esaten
badute ez da izozki gorri bat
munduaren hondamena ea behingoz
datorren esan du john wilkinsonek
non bizi dira orain pelikanoak nortzuek
elikatzen dituzte euren biziak aurrera
ateratzeko gai ote dira galdu al
dute bizirauteko sena zertarako
aspirina bat orain zer irabazten dute
horrela nola egin aurrera heriotza

aintzat hartzea normala bada fedek harrikoa egin du bada zerbait ulertzeko gai ez dena eta itxi

I)

joan egin da
ahaztu ditu marrazki bizidunak
hodi eroriak
errotik atereak
beharbada inspektoreak etorri dira alai
zeresanik gabe ezin da jakin
orain
keak estaltzen badu bere zorion apurra
zer egin joan bada
joana bada azkenaurreko gizona
poliziak lagundurik
protestatu dituzte
edo ordulariak geldiarazi aho betez
bai bart bai bihar goizez
joan zen joan egingo da
ezinbestean laga du oro

J)

edo plaza bat
agureen solasaldiekin bankuetan
eguzkipean pilota
txikiaren salto egin beharra
zatoz hona ba al dakizu
hau badakizu bestea drogetan
lortzen zuen dignitatea ez nion
inori baimenik eskatzen
belar moztu berria errealitatearen
korrelato behinena ez da idealizazio
bat agertu ziren carnaby street
txaranga bat plaka inauguratu du
maragall odon nan parla català
nik suntsitu nuen kale hura
vpo gazteentzat a granel
uko egingo dio errehabilitazio
zentroari prohibido jugar
a la pelota se llama a la grúa
prest daude negoziatzeko

parte guztiek lortu behar
dute zerbait
eguzkia irten da iratzarri da

K)

Ura ez dago horren beroa ere
kaleak ei ziren laurogeiko
hamarkadan bortxa ere zen
zoragarri baina orain zer geratzen
zaigu errutina errepikapena
errepika sermoizaleak elizatik
at ez du harro egoteko motiborik
jada lotsa bainujantzi moderno
hauekin top lessak ez du eszitatzen
sexualki gazteluak printzerik
gabe eta erregerik apenas umeek
ez dakite zer etorriko zaien
egoera honetan medusak metafora
argi bat sikiera istantaren alde
besterik ez bada sokorristen
solidaritatea sos batzuk bai baina
zer ez dira aberats ez bada arrazoi
sofistikatu batengatik ez du inork
jaramonik egiten jendea bakarrik

sentitzen da eta hondarrak
erre egiten du oinetan

L)

marta sanchezen abestiak
eta conchita piquerrenak
nota bat gorabehera
triste jartzen dute oso
desesperatuta dagoela zinez pentsa
ilea bilduta eramaten duten
emakumeen omenez
jose de bilbao al teléfono
no se vaya no que ahora le dan el número
correspondiente para el sorteo se
realiza bajo notario por supuesto
on gizonak gara gizakiak gizon andreak
andre gizonak humanoak
eta ez daki ondo zer esan baina
valeriana bat si us plau
emakume normala naiz
erretzeari utzi nion hogeigarren mendean
baina desesperatuta nago aizu
gure maitasuna

lapur batek lapurtutako
esmeralda bat da

M)

hormak gutxienez hogeita hamar
metro izango ditu aldamio bat
behar da pintatzeko langileak seguru
senti daitezen kaskoak eramaten
dituzte póngase el casco por
su seguridad trabajamos baina
zer nori egiten dio kalte ez al gara
sozietate libre batean bizi galdetu
du mariak ez da galdera erretoriko
bat metaforaren kolonialismoaren
kontra genette zer egin litotearekin
hipalajeak metalepsiak batez ere
metonimia nobela krisian da
eta zu nola sentitzen zara esan
teilatuan sekulako beroa egiten
duela hemen sikiera itzaletan
begira hango hori ryanair
imajina pasajeroak uzkurtuta
ezin kabitu non dago larrialdi
irteera oihuka berriro ere

N)

restaurante maxims oferta
menu fin de semana banatzen
ditu boulevardean beti
pentsatu izan du baliagarria
den marketing fakultateetan
ezer probetxuzkorik
irakasten al da errespetua
adibidez foiletoak hartzeko
ohitura sanoa jarrera puntuatzen
al da botere gune bat gehiago
poliziak esan zieten alde
egiteko zorua zikintzen ari
zirela eta ordenamendu berria
garbi zegoela ostera
mcdonaldsa gustatuko zaizue
gehiago edo gutxiago baina
errealitatea errealitate den
zalantza egiten da jada hau
zoramena hau zuhurtzia eza

deabruaren adiskidea zela eta
heriotza samur bat aldarrikatu
zuen instituzioetan egiazki
nonahi paratu daiteke zubian
abenidan ez bada paratzen
beste inor inon

Ñ)

lorontzi batek aipatu du
egoteko adi tom eta jerry
bake bidean konprometitzen dira
ez galtzaile ez garaile denak
kontent konformatzen dira
limoi bat partitzearen diferentziak
eraman bizitza errealera fiction
pyschon mírese lo suyo
ohartarazita zegoen
zeren kasu egitea egun ez da
eramaten zirkulu batzuetan
esate baterako donostian
dekoloratzen ari da urumeak
eramaten ditu denak
oh gipuzkoako hiriburu
zer gertatzen ari zaizu azken
bolada honetan pyschon
ezagutzen al duzu galdu konfiantza
zorionean ala justizian
zeinen alde egin orain

O)

mediterraneoa urre kolorekoa
jartzen da udako arratsetan plazer
bat fitzgerald irakurtzea terraten
zer da intertestualitatea zer
karaokea fa una nit clara i
tranquila baina nork uka dezake
eguzkia irteteko aukera indukzioak
david balio al du zientifikoki zilegi
al da biolentzia udaberrian
bizi nahi duela betirako neguak
esaterako joera suizida indartzen
diola eta ea seguritate sozialak
ezer egin dezakeen arren ez da
banalitate bat alvaro de campos
itsasontziak pakeboteei begira
saiatutako batzuk hilezinak ziren
bazar batean aberriak zentzua
du edo lurrak itsasoan

P)

kristalaren erreflexuak ez
du fideltasunez erretratatzen agian
triste bizi direlako manifestazioak
performance ekintza armatuak
zein den helburua edo nor
zergatik droga trafikatzaileek dute
halako fama ez diete saririk
ematen ez dute kotizatzen merkatu
beltzean baino non daude laranjak
hemen zer egiten duzu hor merezi
du mintzatzeak sentidurik al dauka ez
bada oinarrizko gauzetarako baizik
egin du apustu esperantzarik
gabe etsita sinetsi ezinda

Q)

anaia nagusiek gobernatzen
zuten euren mundua kantu
gogorragoak gizarteari nazka
haurtzaroa joango zitzaien
konturatzeko songoku gudari
bat zen peter pan
esteta novisimo bat orain
poesiarik ez dute irakurtzen
bideoak kamera digitaletan irudi
desenfokatuak instalazioak
eusko jaurlaritzako bekak
eskatzeko bete formularioa
sormena sustatu nahi dugu
eta batez ere sortzaileak I+G
+B aurrera doan herria doan
lehendabiziko hiru hilabeteak
+T+Ñ+W+zepolitakdirenizarrak
entzun eta mundura jaurtikiak
izan ziren berriro

R)

İtzalak ilunpetan negar egiteko
gogoa eragiten diote hizkuntza
galdu bat gehiago ez dute jatekorik
ematen baina animalia sinbolikoak
gara aizu aizkorak erabiltzen
dituzte batzuetan hori bai
intsektizidak espeziearen biziraupenaren
alde erailketak ezin konta ahala
amodio zapuztu jaiotza frakasatu dute
azkeneko aldiz zin egin diote
euren buruei sinetsarazi nahi diete
merezi duela azken batean bere
trakeskeria guztiekin ere barka
daitekeela ez da karitatea ez da
moral kristauaren bertsio laikoa ez
da etsipenaren garaipena tiobibo
batean ikurrina zabaldu du harro
morroi hau zoro al dago hau da
hau erridikulua egin beharra zer

pentsatuko dute atzerritarrek gure
prestigio apurra galduko dugu
horrela ez dago fundamentuzko
nazio bat osatzerik ah zer negargura

S)

Semaforoa gorriz pasa du
alboko autoak beraiek
errespetatu egin zuten ez dugu
presarik platon akabatuko
dute bestela berriro beste behin
ere angel erro itxoiten egongo
da dagoeneko maximsen hiru
garagardo frank ohara in memorian
le roi amiri arraina zuengatik
jaten dugu orain guk nor
kolpatu zuen bart poliziak
zein da poesia plagiatzeko
metodoa eta adibide bat behin
jarrita gautu egin du jendeak
abriguak daramatza eta lurrari
begira egiten du aurrera abendua
urte bat gehiago baranda ertzean
zigarro amerikano bat erretzen

T)

jenderik gabe ere metroak
ateak irekitzen saxofoi bat
gordetzeko kaja huts bat eta
japonierazko klaseak espazioa
haritan zatiturik kolore
dekonstrukzioa star guitar
bizitza arrunteko loopak edo
memoria arazoak historikoak
non gorde zenituzten hobi
septikoak jasangarriak al dira
garapena orain botoi bat
sakatzearekin nahikoa da ez
dago palanka igo beharrik eta
estazioetan telebista ikusten ahal
da atsedenaldiak eta jendeak
ez du ezer sinesten jadanik
pasa zuten helmuga

U)

etsai handienek erruberak ospea
hamar minutuko luzera dauka
denak painueloak bota dituzte
sutara beltzak koadrodunak queer
is dead afroamerikar lesbianak
ekonomiako katedrak mundua
horrelakoa da eta ez da gure
errua lo aurreko antsietatea
paranoia eskizofrenia budisten
berpizte metodoak edo ataraxia
zuhurtzia falta errealismo gabezia
konpromiso eza humanitatearekiko
zer kausa mono eta multifaktorialak
hobetsi zenuela dudarik gabe
begiak itxita ignorantziaren beloa
baina ez ginen sensibleak eta
zer emakumearen jazarpena
john wilkinsonek aurpegia estaltzeko
desioa adierazi zuen kutsadurak

azala urratzen du billie jean

hogeita hamar eurotan merke

V)

inork ez zuen galdetu eta
poesia zer erreprodukzio
garai hauetan zer espero daiteke
zortea behingoz aitortza ondratu
bat mozart kaleko bigarrenean
bonbilla berdeak dekorazio
saskiak usaina ez da marihuana
eta gero john wilkinson ez
duela normaltasunera iritsi ziren
maximsen morroiak oihu egin
zuelako sinets ezazu osasun
hobe baten izenean topa
honek guztiak zer pintatzen du
abstraktuak zentzurik gaur
fotografiak zinema teknikaren
eragina eta poesia es un decir
arratoiak

W)

eskailerak igo bonbilla
zintzilik eroriko da noiz
joango gara oh jamaica jamaica
irla tropikalak plazera bilatzen
zutelako itzala argi koloretan
eta anfetaminen erabilera
gehiegizkoa moderazioa
eskatzen zuten gke progresistek
ez dute moralista jarri nahi baina
mirenek autopista bat zertarako
istripuak gertatuko dira
espezie babestuak hilko dira
zapalduta ez zuten ezer lortu
ez du deus lortuko hatz
muturrekin ukitu eta bero
da oraindik ere bero

X)

taburetea erori zen ezustean
utzi zituen denak mesanotxea
liburu entretenigarri bat eskatzen
adierazpen askatasuna aldarrikatu
eta arazo logiko metalinguistikoak
alfred tarski etxean geratu da
tenisa botatzen dute bigarren
kanalean selektibitateko ikasleak
aitzakia baten baten bila damutuko
ote diren susmoa baina jendeak
ez die deus esaten bizitzak
erakutsiko die eta ni ez naiz nor
bakarrik nadja ezagutu nuen ia
egun batean hollyrekin kafea
edaten parisen edo new yorken
arteko lapurretak nork ostu dit
arte garaikidea galdetzen du
george walker bushek caminando
se hace camino hala ere jaso
eta eseri egin zen liburu huts

Y)

bi eskuko aterkien azokan
bizikleten jatorria ez da ezagun
bakarrik txina made in spain
liberalak ekonomikoki eta sozialki ba
apur bat ere ez teologoek ez dute
ene arimaz ideiarik azpimarratu zuten
badira gauzak liburuetan ez datozenak
kale borroka herri borroka da kiwiak
problema hermeneutikoak
autoerreferenzia nartzisismoa nonahi
ikus daiteke non dago non geratu
da salbuespenak ez zituzten onartzen
baina ez zegoen alai jartzea ezinezko
baita pixka bat pentsatuz gero
hitz debekatu bat leku mortu honetan

Z)

edo oker jokatuko dute berriro
begetarianoak kexu inflazioa
negozioa kausa duin baten bizkar
gizaki garaikidearen alderdi
ahulena ez moral aldakorra ez
patologia psikologikoak ez
desengainua melankolia nazioartean
saudadea arazoak ikuspegi
patriotikoekin periferia edo zentroa
nola egin itzulpenak zertarako
lan egin ez bada irabazteko
nori gustatzen zaio porrota
nori axola jendearen noraeza
sexuala existentziala baina
ez hori ez hori ez da okerrena
begira morroi horri esan zuen john
wilkinson uzkurtuta dago ez da
tente mantentzeko gai ere ia galdu
du bizi duin bat edukitzeko
eskubidea eta hiltzekoaz zer esan

—3—

EGUZKI APALEAN

«Loreak udaberri honetan ez dira loratuko» esan du
Bazkaltzen ari zela. Bere senarraren indiferentzia (ez
Da ezertaz ohartzen), aitaren presioa etxeko
Hipotekaren gainean, hitz goxotan ezkutatutako
Amaren lezioak, haurren etengabeko eskaerak,
Gaixotasunak. Belarriak pasadizo abandonatu
Batean utzi ditu. 60ko hamarkadan gazteak zirenak
Bezala, eguzkia laranja kolorekoa jarri denean,
Mendi magaleko banku batean eseri eta
Alkandoraren mahukak jaso ditu. Umeak baloia
Hartuta etxera itzultzen ari direla dirudi, izerdi
Patsetan, jertseak gerrian lotuta. Oroitzapenak
Galtzen direnean, heriotza zer izan daitekeen pentsa
Dezake batek; aurpegi bat ahazten duzunean, norbait
Gutaz trufatzen ari delako sentipena izaten duzu.
Horregatik ez du ulertzen zergatik ez zenion
Barkatzen; hain baikara ahulak, azken batean.
«Itsasontzi horrek zer eramango ote du bere baitan,

Soto ilunetan?» galdetu du ozen, inork entzun ez
Badio ere. Behatzarekin seinalatu du gero itsasoa
Noraino ailegatzen zen, esan dezagun, zoriontsu
Zenean. Eta zuk zer uste duzu, balio al dute
Ezertarako garabi erraldoi haiek? Ez, ez erantzun
Orain, itxoin apur batean; ikusi, musika banda bat
Pasatzen ari da kaletik (leihotik begiratuz). Duela
Hamabi urte eraitsi zuten etxe hori (oroitu da) eta
Segidan etorri zen gainontzeko guztia. Gaur ere.
Horrela, tximiniek kea botatzeari utzi diote, edo
Beharbada, egun botatzen duten kea ez naiz
ikusteko
Gai. Zeruak igual-igual jarraitzen duela esan zenion,
Haserre jartzen zareneko keinu hori eginez, triste
Zeundela zirudien-eta, etsita; baina berak, sarri
Bezala, ez zizun jaramonik egin. Atzera so egin du
eta
Ate bat ireki dutela ohartu da. Duela berrehun urte
Biziko bagina, aldapan gorako andrea ur bila doala
Pentsatuko luke. 2007. urtean (martxoaren 4a) bizi
Gara ordea, Mediterraneoko bazter batean.
Eskerrak
Inguru honi, hemengo jende maitagarriari, bestela
Idazteari utziko ziokeen aspaldi (batez ere haurrak

Jaio zirenean), edo ez zen bederen eskailera horietan
Eserita egongo. Zuk oraindik balore galdu batzuetan
Sinesten duzula ez dago dudarik, baldintza
Okerrenetan kemena izateko gai zara, tinko eusteko
Apustua egiten duzu beti, bai; baina zertarako hau
Guztia? Zer irabaz dezakegu? Minutu alai batzuk
Edukitzeko sikiera balio al dezake? Ilundu du,
Mahukak luzatu eta bueltako bidea hartu du berriz,
Bihar zer egingo duen jakin gabe. Edozer da posible.
Gaur ilargi eklipse bat izango dela esan dute irratian,
Kolore bereziak ikusi ahal izango dira zeruan. Eta ez
Da antiojoen beharrik izango gora begiratzeko.
Zerbait pentsatu beharko zenuke.

SANT GERVASIKO ELIZA

Beltzaren barne sartzen da, batzuk esaten dute, Unibertso osoa nahiz eta esango nukeen John ez zela
Iritzi berekoa. Kontuan izan aterkia irekitzen Zuenean esaten zuen esaldi hura, edo erosketetan Izaten zituen zalantza konponezinak. Beroa egiten du
Gauden garairako. «Agian ez dago jada soluziorik» Aipatu dit lagunak, bigarrenean ulertu diot, eta Sant Gervasiko elizako kanpaiek laugarrenez jo Dutenerako iritsi naiz Verdi kalera.

Etxeren bateko itxaropena alde egiten ari da Hoditeriatik urak uholdeak gertatzen direnean egiten
Duen antzera. Eta musika ere entzuten ahal da, Lucinda. Inork ez du oso garbi bere egitekoa arte Sisteman, edo instituzioan (!). Eta gauzak ziur Dauzkatenak izan daiteke: segurtasun falta beren Buruetan; umetako trauma infantil bat, zeina ez den

Agerian jarri, subjektuaren (!) kalterako, noski;
Harrokeria justifikatu gabea; interesak, gisa
Guztietakoak.

Horregatik pentsa dezaket Johnen iritzia ez dela
Halakoa edo suposatu, arrazoi indartsu bat dagoela
Atzean, ez dakit, eman dezagun, giza duintasuna
Kolokan jartzen duen zerbait. Fidatzeko moduko
Morroia baitzen (ez dut esango garai zaharretako
Horietako bat zenik, eszeptikoa naiz filosofikoki, eta
Filosofiarekiko), Gasteizen ikusi nuen gau batez,
Harriturik. Isiltasuna desgrazia bat da gizaki
Estandarrentzat, guretzat esan nahi dut,
heldutasuna
Aurrezki kutxara kexuka, sumindurik, joanda lortzen
Dela pentsatzen dugunontzat. «Udaletxera joatea
Bizigarritasun baimenak direla medio» gogorarazi
du
Inondik ere inozoa ez den irribarre bat aurpegian.
Ordaindu eta irten egin naiz, berandutu egin da-eta.
Bero da oraindik eta oinez egin dut bidea. Autobusa
Orain hartzea eromena da, trafiko izugarria egoten
Da ordu hauetan, autobusak ez du merezi hiri
Honetan. Eta linea honetako metroko trenak

Zaharrak izaten dira, ez dute aire giroturik, izerdi
Patsetan bukatzen duzu, jendez lepo, eta ez zait
Komeni piura horiekin aurkeztea han. Aurten beltza
Nagusitzen ari da berriz ere, eta soziologo
ausartenek
Kontserbadoreen garaipena aurreikusten dute
Hauteskundeetan. Zure obrek ez lukete arrakastarik
Izango John, inork ez lituzke aintzat hartuko, beste
Behin etorriko lirateke italiar horien gisakoak,
Gogoratzen John? Azkenean, ez duzu gehiegi galdu.
Hemendik ez da itsasoa ikusten baina eguzkia
berdin-
Berdin ezkutatzen da antena mordoen eta
eraikuntza
Irregularren atzealdean.

ACHTUNG!

Berlin ekialdeko parke berde batean, haurrei
Gezurrak kontatzea bezala, paretik kentzeko. Bando
Guztietan egon diren poliziek aginduak eskatzen
Dituzte, ez dute sermoirik nahi jada. Teoria buruz
Dakitela esaten dute, eta zuk isilik jarraitzen duzu.
Gorputzean harrak sartzen zaizkidala sentitzen dut
Baina haatik ez diozu deus. Ulrike Meinhof atzo
Agertu zen berriz zintzilikatuta, ez zen harategi bat
(Ustez). Autoritateek, ordea, zure jarrera hartzen
Dutela dirudi, bakarrik Michel Foucaulten teoriak
Kondenatu (bai, kondenatu) dituela sarjentu batek
Egunkarira bidalitako artikuluan —Peter Schneider,
Estatuko funtzionarioa—. Asperdura, nekea, zakur
Arraro bat, larritasuna, eta hala ere, Hermannek
Betikoari eutsi zion bart, Venezian dantzari. Noiz
Ulertuko duzu dena erregalutarako paperetan
biltzea
Ez dela niretzat zoriona lortzeko biderik motzena?
Esango dizut agian (edukiko ote dut hain lotsa
Gutxi?) garaje mordo horiek dauden kaletik
pasatzen

Garenean. Begira, polizei bat zigarro bat erretzen
Ari da furgoneta kanpoan eserita. «Atsegina dirudi»
Esan didazu. «Atsegina da» erantzun dizut.
Garajeetan autoak garbitzen dituzte batzuek, pieza
Garestien trafikoan dihardute, Ulrikek ez bezala,
Unibertsitatea zapaltzeko zortea izan ez dutenek.
Esku zikinekin ezin baitira erabaki moralak hartu
Zentzutasunez edo lehentasunak seinalatzea logikoa
Dirudi kasu batzuetan (zenbait galdera
Konprometituren aurrean). Motor hotsak entzuten
Dira, belarriak horretarako baino edukiko ez banitu
Bezala. Eta horren erruz, hizkuntza hori ulertu gabe
Jarraitzen omen duzu, eta akaso beste zer edo zer
Gehiago ere, batek daki.

L4

Barkamena arazo izaten da beti, ezta Ainhoa?
Gazteak toalla hartuta hondartzara joaten diren
Sasoian, damuak jokoz kanpo geratzen dira. Hemen
Artifizialak dira gehienak, gizakiak eraikitakoak eta
Eskultura irregularrak dituztenak. Ez dago gaizki.
Jendeak euren gauzak hartuta alde egiten duenean
Berriz, jaitsi egiten naiz. Ejertzito baten erretirada
Bezalakoa da. Gertuko etxebizitza garesti batean
Festa baterako prestatzen ari dira, zuk liburu batzuk
Eramaten dituzu. «Emak Bakia» galdetu dizute
Zer esan nahi du? Lau liburu erakutsi dituzu orduan
Esanez bezala: «Hemen duzue erantzuna».
Ia antzeman ezin izan dudan arren, mareak behera
Egin duela dirudi. Zeinen mugatuak diren gure
Zentzuak, pentsatu dut, eta liburu bat seinalatzen
Imajinatu zaitut, «hemen duzu erantzuna» esanez
Bezala. Horrela, beste egun bat alde egiteko bidean,
Capri c’est fini. Kale garbitzaileak gerturatzen hasi
Dira, eta nik, jaiki eta kaleko farolen babesa bilatu
Dut. «Zer esango lukete nire bizia benetan ezagutuz
Gero?» galdegin diot, berriz ere, ene buruari.

«¡Viva La República!» oihukatu du gero norbaitek
Azentu arraro batekin (ez dakit zertara etorri den).
Eta, han, Urrunean, morroi bat ikusten dut gaueko
Itzal artean. Andy Warholen ibilera dauka eta
Kantatzen ari dela dirudi. «Non zeunden zu 1982ko
Apirilaren hamabiko arratsaldeko bostetan?».
«Ospitaleko Kafetegian, zer iruditzen?».
«Kuriositatea baino ez zen» erantzun diot.
«Harrezkero ez naiz itzuli, eta dena ondo badoa,
Ez eta itzuliko ere, jauna». Solas egin dugu ia
Egunsentira arte (ematen zuena baino argiagoa da,
Soilik ez dela garaipenak eramateko gauza).
Ni ez naiz Nemo Kapitaina, itsasoa maite dut bai,
Baina laztanak ez ditut gogoko. Ordu honetan,
Mozkorrek ere hanka egiten dutenean, ez dituzu
Topatuko kalean bakarrizketan. Gora begiratu eta
Argia piztuta dago etxe batean, Ainhoa.

DENBORA LIBREA

Ematen du izen baten (aditz baten, eta zergatik ez,
Atzizki baten) aukeraketa ez dela determinantea,
Gauzei dagokien garrantzia baino gehiago ematea ez
Delako zuhurra. Gainera, dena hitzen konbinaketa
Bat baino ez ei dela esaten dute teoria modernoenek,
Autoerreflexibitatearen arazoa utziz gero alde batera
Bederen. Larrua jotzea, izen bat, maitatzea, beste bat,
Motzagoa gehienetan, askatasuna, aditz bat,
Irregularra. Gaur ostirala da, eta jende arruntak
Egitasmoak antolatzen ditu serioski larritu baino
Lehen. George elkarneurgaitztasuna goratzera pasa
Da hitz akademikoak saihestu nahian, baina jakina,
Orain erraza da dena. «Gizakiaren ohitura da zabor
Gehiegi ekoiztea» esaten du. Inork ez dio bere
Ikuspegiaren eurozentrismoa leporatu, adibidez,
Edota zenbait kontraesan nabarmen, orain erraza

Baita dena. Performance bat egiteko gogoa sartu
zait
Bizitzan lehenengo aldiz, baina bai, egia da, ez dut
Adore nahikorik. Lorontzi bat dago koadro baten
Pean (Bruno d’Arcevia? David Ligare?), mahai
Ondoko gizon edadetuak irri egiten du, hiltzeko
Zeinen gutxi geratzen zaion ahaztu balu bezala
Denbora baterako. Orain jendea pozik sentitzen da
Oro har. Zeintzuk izango ote dira gaurko kanapeak?
Galdetzen diot neure buruari (aspertzen naizenean
Galderak egiten ditut mentalki, entretenitzeko-edo,
Nahiago dut beldurra asperdura baino). Señorita
Batzuk irten dira gero, denak berdin jantzita,
Painuelo moduko bat buruan, eta arraroa irudituko
Zaizun arren, zurekin akordatu naiz. Lotsatuta
Dirudite zaharrenek; gazteenek, begi bat kliskatzen
Diete berrogeita bost urtetik gorako gizonei, euren
Duintasuna bazterrean galdu gabe, hori bai. Zein
Urtetan bizi ote gara? Txakur txiki bat eskuetan
Daraman emakumeari galdetzen badiot zorotzat
Hartuko nau, eta ez du ematen erantzuna
Arrazoitzeko gai. Bi mila eta zazpigarrenean, gazte,
Egutegi juliotarra aintzat hartzen badugu, noski;

Egutegi txinatarra hartuz gero, esate baterako, suzko
Zerriaren urtean gaude. Denbora erlatiboa al da?
Zu kristaua al zara? Sinesten al duzu Jainkoa?
«Baiezkoa bi galderei, ezezkoa beste bati».
«Hori ezinezkoa da logikoki, gazte». Eta txakurrak
Txinatarra dirudi, pekines bat, hori da. Kanpora
Irten naiz zigarro bat erretzera, eta hor ikusi ditut
Señorita batzuk gizon ezkonduekin solasean.
«Hizkuntza izanaren etxea da» eta horrelakoak.
«Zuk uste Shakespeare autore modernotzat har
Dezakeguna?» entzun diot beste bati. Eta soneto
Petrarkistak nahiago ditudala esateko gogoa izan dut.
Londres du izena hiri honek. Italian? Spanish? irria
Galdu gabe. Ene, ematen du pintza ikusezin
Batzuekin luzatu dizkietela masailak neska hauei.
Zer bizimodu eskas, zer arrunkeria, zer degradatzeko
Joera, zer edertasun ezezagun, zer izan nahi du jende
Honek handitan? «Galduta gaude» gustatuko
Litzaidake entzutea haien aho polit horietatik, zuk

Esaten duzun modu horretan, edo behintzat, antzera.
Mende oso bat ikusi dut eskaileran gora pitufo
Urdinez jantzita eta gainontzekoek ere ikusi ote duten
Zalantza egin dut. Ikusi, ikusi al duzue mende hori?
Zeinen ttipiak diren, ez al zaizue iruditzen? Baina
Haiek uler ezin dezaketen hizkuntza batean hitz
Egingo diet, finlandieraz edo japonieraz, ez dut
Erabaki oraindik. Eta Amerika ez zuela deskubritu
Colonek, ezta balea bila joaten ziren euskal
Arrantzaleek ere. Amerika asmatu egin zuten,
Ilargiko konkista Hollywooden asmatu zuten gisa
Berean. Amerika asmakizun bat baita, irratia edo
Telebista asmakizunak diren bezalaxe. Euskal Herria?
Kategoria baxuko beste asmakizun bat, esan gabe
Doa. Ez dakit zer egingo lukeen Gatsby Handiak
Egoera honetan, baina imajinatu zerbaiti kantatzen
Hasten dela: «Oh, Marilynen titi ederrak, zurruna
Al zen zuen morala ere? Oh titi errepikaezin horiek,
Ez zineten merkantzia bihurtu, eta hala ere, jendeak
Zuekin egiten zuen amets, ilara erraldoiak sortzen
Ziren zineman zuen erruz. Barkatzeko gai al zarete?

Nolakoa zen John F. Kennedy intimitatean? Oh, oh,
Hautsi ezazue orain arteko isiltasuna, oldartu
zaitezte
Behingoagatik, ziur Marilyn zuetaz harro egongo
Zatekeela». Ez. Zaila da. Edo badela garaia esaten
Diotela euskal poeta bati, badela garaia aberriari
Kantatzeko, eta idazten duela: «Euskal Herria,
Ez dakit barkatuko nauzun, baina ez zaitut sobera
Maite. Onartu behar dut ez nagoela ene bizia zure
Alde emateko prest. Euskal Herria, zenbat neke
Eragin dizkidazun, eta ez, ez nago zutaz harro,
Ez zara lagun erraza, sarritan arbuiatzen zaitut» eta
Errimarik ezin zaiola eta aitzakia sinestezinak
erabili
Dituela. Hitzaldiak jogurt kadukatuak bezalakoak
Dira, eta hau ez da salbuespen. Halako giro nahasi
Bat sentitzen da airean, tragedia latente ugariren
Seinale. Lanparak, esaterako berde kolorekoak dira
Gehienak (badago gorri bat, bi urdin) eta argi gutxi
Ematen dute, ipurtargiak dirudite. Mila iraultza
Burututa ere gauza batzuk ez dira aldatzen, hitzak
Hitzak diren arren. «Gaur egun hobea dut», hala
Esan didazu (nik sinetsi) eta optimista izateko
arrazoi

Bat bera ere ez dagoen arren, ni musukatzeko gogoa
Duzula ematen du. Argia itzali duzu. Eta Shaftesbury
Abenidan lan eta lan ari dira inmigranteak (hemen
Kanpotik ikusten ditut), gabonetako argiak
Zintzilikatzen. «Zigarro bat zapaltzean norbait
Akabatzen ari naizela sentitzen dut» esan zuen
Poeta batek bere denbora librean.

HODEIAK

Birus informatiko batek nazioa utzi du
Hankaz gora, bere kolorea berdea dela,
Gorria dela, ez ei daude ziur. Jendearen
Aurpegietan ikusten da, lantegi zikin
Honetatik nola atera. Eta galderak egiten
Hasi dira. «Chicagon hau ez zen gertatzen».
Usoak plazan, hiru metroko pianoa
Ile-apaindegian sartzekotan, baina tira,
Etsi egin dut. Bigarren aldia da honezkero,
Eta euriak setati jarraituko du, askatasunez.
Irratien sintoniek ordua adierazten dute
Inork galdetu gabe: «Ordurik baduzu?». Bai.
Mara Cagol-i Dani Cohn-Bendit-en argazki
Bat erakutsi diotela. Gizen dago eta puru
Bat erretzen ari da liburutegi baten aurrean.
Oh my god! esango luke haur batek.
Apartamentu berrian Carlosek apaingarri
Bat zintzilikatu du sukaldean, gustatuko
Zaizu. Zalantza egiten zuen gorrizkoaren
Eta beltzezkoaren artean, baina tira, gustatuko
Zaizu. Ziur naiz. «Non zaude?». Ohean

Oraindik. Irten al daiteke kalera? Carlosek
Lan berri bat topatu du, pozik dago. Ez dakit
Zertarako dagoen horrenbeste suhiltzaile eta
Anbulantzia, egia esan. George Harrisonen
Etxea, badakizu? museo bihurtu dute. Iritzi
Orokorra ados zegoen eta alkateak zinta
Zatitu du haginekin. Eta orduan bai, orduan
Iritzi orokorrak ekintza gaitzetsi du baldintzarik
Gabe batere. Inkesta guztiek hala esaten dute.
Begira, ez dago fidatzerik, 1935eko maiatzean
Transatlantiko bat inauguratu zuten Normandian
(Xanpain botila bat jaurtikiz, noski), eta
Alegrantzia guztiak desagertu ziren denbora
Gutxiren buruan. Hala, zer ondorio atera
Dezakegu? Hezetasun honekin xomorroek jango
Gaituzte martxa honetan, ikusiko duzu. «Zein
Helbidetan bizi da orain? Norekin? Zoriontsu da?».

ZENBAIT KOLORE

«Izana» letra etzanez idazten da, «gogoa» gako
Artean, «hizkuntza» letra lodiz. Dirudiena baino
Errazagoa da; logika apur bat, zuhurtzia, mailu bat,
Besarkadak eta musuak. Gran de Gracia-n sirena
Hots ezezagun bat entzun da kausa-efektuaren
Aldekoen zoritxarrerako. Iritsiko dira gabezia
Garaiak, hondamendi konponezinak, bigarren
Mailako alaitasun zurrunak, eta ni zubien gainetik
Igarotzen naizenean, «barkatu» edo «agian» esango
Dut. Ez dut gehiago galdetuko. Horrela, hitzek
Ulertuko naute, ez duzu azalpen berririk behar
Izango. Eta orain topografo batzuk aldaparen
Pendiza kalkulatzen ari dira, bart gauean aldatu izan
Balitz bezala. Miquelek ezkor jarraitzen du baina,
Hala ere, berak ordaindu du dena. Rubik-en kubo
Bat oparitu diote eta nik nahastu dizkiot koloreak.
Rubik gako artean idatzi beharko ote da? Esan ezazu
Zerbait. Esaldi arrunt bat sikiera. Irten egin naiz, hiri

Honetan sekula egon ez banintz lez. Euren hizkuntza
Ulertzen dut, bai, baina ez euren ibiltzeko modu
Estraño hori. Eta, gaur, bi eurotan saltzen dute
Laranja kiloa supermerkatuan. Prostitutek, bestalde,
Eurenean jarraitzen dute, «prostituta» nola idatzi
Behar den axola gabe, edo arrazoia armairu (handi
Edo txiki) batean sartuko bailitzan. Miquelen auto
Berria urdina ei da, eta ekologikoa, ez duela
Kutsatzen ia. Eta Silviak katua (bost urte) saldu du,
Asaldatuta, egunkarietan iragarki horiek ikusi
Dituenean. Horregatik ez du zaintzen sobera bere
Itxura, bere jantziak, eta ez da apenas apaintzen jada.
Zer egin genezake? Norberaren alde egitea zilegi
Bada, ez zaigu sobera geratzen; distantzia jakin bat,
Abiadura zentzudun batean aurrera egin beharra,
Ahal bada. Horrela, dantzatzen ahalko duzu
Loturarik gabe, libre. Nik alde egingo dut, beste
Leku batzuetara; ezin esan nora, nola. Hitzak zama
Handi bat izango dira han ere.

GEOGRAFIA

Norbanakoaren posizioaren menpe
Gauzak, objektuak, gisa ezberdinean
Antolatzen dira. Ordenak ez du inoiz
Seme bikirik erditzen, eta higidurak
Ez du zinez iturri finkorik. Puntu bat,
Koordenada geografiko jakin bat.
Ezinbestean amiltzen da mundua bere
Baitan, nostalgiarik, garai hobeen mirarik
Edukitzeko aukerarik gabe. Luis de
Gongorak esan zuen behin, hordituta,
Jaiotza eta patua heriotzaren modalitate bi
Baino ez direla, eta Juan Ramon Jimenezek
Erantzun zion gero: Ezin da dena aurreikusi
Luis, ezin da. Balkoiko emakumeak erabat
Biratu du bere burua adibidez, aurrezki
Kutxako eskaleak, unibertsitatean pasa
Du gaua. Tren estazioa hamar zentimetro
Mugitu da ekialdera osteguneko lurrikararen
Ondorioz baina «ez dago arduratzeko
Motiborik», esan dute ingeniariek seguru,
«Lurrikarak mendiak mugitzeko gai

Dira». Beraiek ere, fakultate garaitik
Iragandako denbora kontatu dute eta
Galdu egin dute arnas apur bat. Euren
Amiltzea, izan ere, tristea baita.
Frantsesek, guztiarekin, aurrera egiten
Dute, automobilak ekoitzi, banderak
Eroan, doxa eta epistemea zedarritu,
Harrotasuna mantendu lotsarik gabe,
Eta abar. Bi bider zenbatuta ere, fisikaren
Legeek ez dute etsiko eta maitaleek tipi-tapa
Pasioan jarraituko dute baratze zainduetatik,
Itsasertzeko kale garbietatik. Horregatik da,
Pentsatu du Mariak, alferrikakoa.

ARBOLEN ABARRAK

Zita bat jaso dut ezustean, «Reclaim the Streets»,
Eta kalera irten naiz. Gaur egun, maskarak
erabiltzen
Ditugu eta modu berezian mugitzen gara. Hitz
Batzuk baztertu behar baina beste batzuk asmatuko
Ditugu. Piazza Alimondan elkartu gara Rosa, Aitor,
Carlo. Bart gaueko euriak kaleak garbitu ditu, laster
Ordea, kolorez tindaturik egingo du euria eta
Beharbada alai sentitu ahalko gara. Berrogeita
hamar
Urteko emakume batek arropa bota dio leihotik
Gazte bati «Gorroto zaitut» esango balio bezala.
«Ahaztu egiten zaizkit gauza inportante denak»
Bekainak jasoz. Izenak, kontzeptuak, argudioen
Ordena, segidak, nire etxera itzuli nahi dut.
Adulterioa jasangarria egiten zait, ez da hori orain
Nire ardura. Aukeratu beharra beti baita tragiko,
Pelikula batzuetan gauzak nahasten diren arren.
Elkar besarkatzen dugu. Bihar arte, behintzat,
Merezi izango du. Edo hemen geratzen gara,
Itxaroten. Jendetza altxa egingo da, edo akaso ez,

Portuko tabernaren bateko terrazan geratuko dira.
Ezin konta ahala liburu idatzita ere ez dugu zinez
Segurantza handirik, urrun geratu zaigu bizinahia.
Kaligrama formako poemak (kaligramak) idatzi
Zituzten aurreko mendean, eta begira orain. Hemen
Gaude, gehiegi hobetu ez dugulako sentimenez. Lo,
Nekatuta, espaloiko koska txikienean eseri nahiko
Genuke benetan. Baina, hala ere, zuhurtziari bizkar
Eman diogu beste behin. Haizeak arbolen abarrak
Mugitzeko indarra galdu duela dirudi, zakurren
Zaunkak isildu dira. Oro propio prestatua dagoela
Iduriko luke, oro zorizkoa dela honezkero jakingo
Ez bagenu. «Gero, nigatik galdetzen badute,
erantzun
Ezazu edozer gauza».

BERDEZKO ALDIRIAK

Hizkuntza-joko batean murgilduta alferrikako neke
Ugari aurrezten dira. Eta jarioak elkargurutzatzen
Kiribilduta maiz; batzuk hazi egiten dira, beste
Zenbait, behinola nagusi izandakoak (edo betidanik
Galtzaile izandakoak) txikitu egiten dira,
ahitzeraino.
Jolas bat baino gehiago da. Mundua galdu egin da
Baina semaforoa noiz berdatuko itxoiten dut.
Jendetzak ostu egiten du argia, leku eza, akidura:
Piercing & Body Painting. Kantatzen dihardute
Atzerritar batzuek «Bésame, bésame mucho, como si
Fuera esta noche la última vez», ez dira jabetzen
Talaien balioaz (batez ere euren egoeran). Hau da,
Ilunpetan, biluzik, bakardadean. Nik, azidoak modaz
Pasa ez direla aldarrikatu nahi dut, plaza hura
Isuriaren bestaldean egonagatik. Maite ditut,
Marisa,
Andy, Joanna, D. Prest nago desengainuetarako,
Larrua gogortu zitzaidan iparraldeko haizeen erruz.
Beltz batek bisera batekin estaltzen du bere
aurpegia.

Beste tipo bat ailegatu da. Kaleak halako manera
Dute, hemen ezin da sobera egin egiaren alde,
Ez zintuzkete serio hartuko. Barrendu nintzen
Hizkuntza-joko batean eta ez nuen topatu deus han:
Mundua(k), objektuak, gauzak, jainkoak, egia.
«Teilatu honetatik nola atera argazki berri bat?»
Galdetu didazu, eta nik ironikoki interpretatu behar
Izan dut. Nola bestela? Lerro zoro hauek ezin dira
Ekidin dagoeneko, sareak ezinbestean atzemango
Zaitu. Ondo bidean, andere bat hunkitu ahalko
Duzu udaberriko egun ezinezko (hala dirudi) batean.
Eta gero, sinatu eta data jarriko duzu bolaluma
Berde batez. Gertaldi agortezinak etorriko zaizkizu
Burura ausaz, baina zuhurrena galdu egingo duzula
Sinestea da. Eta gauza okerragoak badira. Pentsa
Zenbat jende hilko den minbiziak jota eta
Orijinaltasunaren inguruan hausnarketa sakonik
Egin gabe. Ez dira argazkilariak auzune honetan bizi
Izan diren bakarrak. Segurua da zu ikusiko
Zintuztela teilatuan sarritan, pentsakor, enigma
anitz
Ebatzi ezinda. Bai, leihoetan paratuko ziren. Orain,
Ordea, oinazeak harrapatu ditu. Elkarren antza
Handia duten bi gauza topatu ditut portalean, eta

Beste bi magrebtar, eta hegoamerikar, eta
Txinatarrak, eta pertsianak, aulkiak, kajak,
Kakalardoak, eta zakurrak, eta bizikletak, eta abar.

IRUDI GEOMETRIKOAK

Haizeak lehortzen badu, iparraldean itxaropena
Hankaz gora geratuko da, beste behin ere. Besoak
Mugitzen baditu, zisneak kantari hasiko eta Jackson
Pollock koadro batek ihes egin diola jabetuko da.
Ez baditu mugitzen, inork ez du deus ziurtatuko.
Ez da beharrezkoa izango. Aulkiak, ordulariak,
Kajak, agur esateko mila eta bat modu berri.
Horregatik, galderak egingo ditu Aliziak, galderak,
Beharrezkoak, garestiak. Erre al daiteke hemen?
Merezi du morroi hori jipoitzea? «Ez dakit»
Pentsatuko du «baina asasinamendua zilegi da».
Buruko muinak erregalatuko ditut harategietan
Euskal Herria pozoitzeko. Behatz lodiarekin estali
du
Eguzkia baina ez da ohartu beste galdera bat eduki
Zezakeela hor. Euria hasi du, eta hala ere, inork
Ez du ireki aterkirik, zertarako? galdetuko luke, hala
Nola, Aliziak. Nola? Irudi geometrikoek ez dute
Apenas espaziorik gaur egunean. Botereak baztertu
Ditu, hedabideek zokoratuak izan dira, heriotza duin
Bat baino ezin dezakete espero orain. Horrela joan

Dira gauzak. Horrela egiten dute negar jainkoek,
Horrela alegratzen dira telebistaren aurrean.
Isiltasuna eskatu dute gero (ezin jakin zenbat
Denbora pasa den), patxada ederrean lurrean eseri
Eta dantzatzen hasterako. Ez dute ezer esan. Down
Jonesak behar baino gehiago egiten duenean gora,
Hiri hau utziko duela agindu dio bere buruari. Zein
Lurraldetara joango zara Alizia? «Nire ihesak
Petrolioaren momentuko kotizazioaren halako hiru
Balioko du. Baina ez gaitezen orain horretaz mintzo,
Nire alabak gaixorik daude eta ezin naiz ume
Gehiagoz erditu». Zeruak kilometro mordo bat egin
Ditu behera, jaitsi egin da aihen-belar batzuetatik.
Alizia: Txikitako oroitzapenekin akordatzen naiz,
Donostian, kai ondoko plaza hartan. Petrolio
Orbanek ahateen hegalak zikintzen zituzten uretan.

GLADYS

Balentria handiek zentzurik zuten garaietan bezala
Proletarioek beren izana galdu dute. «Aldatu egin
Dira!» esango dute soziologo baikorrenek. Linea
Horiko bagoiak aldatzekotan direla irakurri dut
Doako egunkari batean, errepidea noiz libratuko
Esperoan nintzela. Ez da udaberria ailegatu oraindik
Baina 80ko hamarkadako herrialde komunista
Batean bizi naizela iruditzen zait estazio honetan
Sartzen naizenero. Eta aurrera ekiteko kemena
pizten
Zait zenbaitetan halaber, gezurra badirudi ere, dena
Ez baita horren dohakabekoa. Eta orduan Gladys del
Estalekin akordatzen naiz, nola Guardia Zibilak
Garbitu zuen gupidagabeki 1979ko ekainaren 3an.
Eta jendeak kantatzen zuen: «Fuera yankees de
Navarra» eta eguzki antinuklearrak negar egin zuen
Estreinakoz. Iragana ez da harro egoteko motibo
bat,
Eta orainaz, etengabe gorroto eta maita dezakegun
Orain horretaz, zer esan? Zenbat bider ez ote dugu
Exijitu bake apur bat? Bakea gaztetatik egotzi

Dizkiguten arduretatik, galdetu gabe egokitu
Dizkiguten zametatik. «Adiskidea», esan diot,
«Egin dezagun minutu baterako baino gogoangarri
Izango ez den ekintzaren bat». Serioski begiratu nau
Eta zurrut epel bat eman dio kafeari. Ez du deus
Erantzun. Eta beste behin alde egin beharrean,
susmoa
Eduki arren hori ilusio bat gehiago baizik ez dela
Azkenean. Hiri honek bere mugak ditu, beste
edozerk
Bezalaxe. Bihar, elkar agurtuko dugu desertuko
Errepide zatar batean. Parke eder batera joango
naiz
Eta, belarretan eserita, kargu hartuko diot
munduari.

EROSOTASUNA

Kuboak, laranjak, arkatzak, hasperenak, landareak
Japonian bizi izango bailiran. Azkenean, bi eskuko
Amoranteek auzo lotsa sentiarazten diotela onartu
du
Aireportuan. «Aitormen inportante bat egin nahiko
Nizuke» esan du zehazki. Ez da sinestekoa hemen
Galtzerik dagoenik; baina hara, datuen arabera
Jendearen nahasmena inon baino larriagoa da leku
Honetan. Zenbat mintzaira ulertezin, zenbat arrotz
Jende, zenbat objektu nahasgarri. eta inork
Erremediorik jarri nahi ez duela; inor ez dela kapaz
Anabasa honi aurre egiteko. Urrats batzuk
aurrerago
Mossadekin topo egin ahal duzu, adibidez; zure
Atzealdean egin duzu berba ezin konta ahala
Emakume misteriotsurekin. «Greta Samsa» irakurri
Dut, «noiz ezkonduko zara?». Betirako geratuko al
Zara neskazahar? Ezin da hazi lorerik jada, orain
Auto gorriak zozketatzen dituzte, eta tropikoetarako
Bidaiak, eta telebista berriak eta abar. Neska eder
Askoak jarri dira perfumeak debalde banatzen.

Horrela errazagoa da itxaroten jarraitzea, zure
Senideak noiz ailegatuko. Erabaki garrantzitsu bat
Hartu behar izan zenuen, urteak ziren zure burua
Halako ataka larrian ipintzen ez zenuela, baina hala
Ere, hor zaude, ezer gertatuko ez balitz bezala:
arlote
Alkoholizatu bat hiru metrora, beltz bi txineraz
(Mandarina) berbetan, azafata bat bere nobioari
Errieta egiten. Begira, gogoratu zara, aparkaleku
Horretan hil zituzten beren izenak ahantzi dituzun
bi
Ekuadortar. Ez da erraza jakiten hau zer den, nola
Definitu espazio hau, zeren arabera osatu iritziak,
Zein neurri erabili erosotasun amiñi bat lortzeko.
Egunkarietan azaldu da: Kotxe istripu batean zendu
Zen bart Mike Tyson. Ene. Eta zuk estatistiketan
Pentsatu duzu zeure burua zuritzeko. Normala da.
Hemen behar zuten dagoeneko.

ZORIONEZ

Andreu Gabrielentzat

Elurrak oro estaltzen du, ez du etorkizunean
Pentsatzen uzten. Hostoak aspaldi usteldu dira
Espaloian; agian, hemendik urte mordo batera euren
Lorratzak topatuko dituzte iltzaturik harri
Pusketetan. Jane joan egin zen lurralde ederrago
Baten bila, beste bizi baten alde. Antzinako
Gobernadoreak bezalaxe, kemenez begiratu zuen
Itsasoz bestaldera, zera esanez: «Ezin da hildako
Baten kontra borrokatu» eta nik ezin izan nion ezer
Erantzun. Orain, hemen, Shirley Templerekin
Larrutan egin nahiko nuke, bere biloetatik tira egin,
Jo emagaldu bati bezala. Teilatuetan, prest dira
Denak, azkeneko errezoak egin dituzte lipar batez
Euren buruez harro sentitzeko. Parkeko loreek
Higuina sorrarazi didate, nazka, amorrua; baina zer
Lor nezake banan-banan aterako banitu errotik?
Udaberria aspaldi amaitu zen betiko eta inork ez
Dauka gaur heroi izateko borondaterik. Zorionez.

Kuraia apur bat besterik ez dut eskatzen
suizidentzat,
Bihar elurrak estaliko dituenentzat. Guretzat. Gure
Lagun eta amoranteentzat. Etsaientzat. Berriz saia
Gaitezke apika, baina mereziko ote du? Kaleko
Farolek dir-dir egiteari uzten diotela pentsatu dut
Momentu batez, baina leihoaz harantzago jendea
Besterik ez da ikusten, abrigu luzeekin eta gora
Begira. Katu beltzak eta guzti izutzen dituzte
gaueko
Itzalek, errepideak oihan bat dirudi, itsas azpiko
Hondarra. Hala ere, zortea izan dugu segur aski.
Behin sentitu genuen zoriona, denbora luzez barre
Egiteko motibo bat; ezagutu ditugu iluntze eder
Batzuk, hizketa gogoangarriak, Jonek, Mariak,
Ikerrek jarritako abestiak. Metroa, basoek txin-txin
Egin dute, dirua galdu dugu. Zinema pantailatik
John Huston irten dela esan dute iragarki batzuek,
Ekologista itxura zuela atzera zeluloidean sartu
Aurretik. Guk, adiskideok, ordea, badakigu hori
Guztia ezinezko, gezurrezko dela. Etorriko zatekeen
Nigana.

ULERMENA

Inoiz joango ez den gaztetasunagatik eginen
Dut topa, kasik xaloak ere ezin izan gaitezkeen
Garai honetan. Eta imajinatuko dut euskadi,
Mundu eder bat (ze lotsa, hau lotsa!) Sofan
Bota dut berriz ene burua eta gora begiratu
Irudi poetiko, agerpen ezustekoren baten bila.
Oh, oraindik orain gizakion epeltasuna
Estimatzen zenutenok, non utzi dituzue zuen
Arropa urratuak? Sentitu al duzue inoiz
Katea zuen bularraldean? Ailegatu al zarete
Ukitzera? Zenbat galdera egin nitzake, militar
Batek bezala, zenbat kolore berri gogoratu.
Distantzia maiatzeko iluntze bat da, izan ere.
Marc-ek ura ekarri du, eta agian, komunismoaren
Zentzuan pentsatzen ari da, oraingo
Balizko zentzuan. «Nola deitzen zizuten zuri
Txikitan?». «Leihoa itxi ezazu arren, Marc». Bihar
Lotan pasako dugu eguna, denbora alferrik
Galtzearen (eskaintzearen, Marc) laugarren
Apologia hilabete berean. Hemen whiskia
Edaten dugu (moderazioz), eskoziarra gehiago

Jakin nahi baduzue. Parisen ezagutu genuen
Elkar, horrek esanahi bat zuela uste genuen
Denboran. Inork maite ez duen terrorista inmoral
Bat naiz finean, badakizu. Edozergatik hilko
Nuke, arrazoi zehatzen beharrik gabe, kausa
Absurduak aldarrikatu gabe, barkamena eskatu
Gabe: Rodriguez Galindo Astoria zinemetan.
«Honek ez du zerikusirik politikarekin, hau
Etika da». Forma jakin gabeko figurak topatu
Nituen kale bazterrean, umezurtz, abandonaturik.
Zergatik zaude hemen, Barbara? Ulermena,
Esanahia bilatzeko? Badakizu, Lasa eta Zabala
Alacanten karez estalirik aurkitu zituzten.
Batzuetan soluzioa aurkitu dudala iruditzen zait;
Adiskide, ez dakit zuri ere gauza bera gertatzen
Ote zaizun. «Noiz kontatu nizun liburu haren
Edizio berriarena». Edalontzia bete du. Behin
Baino gehiagotan gorrotatzeko jaio garela
Pentsatzen dut, gure etsaiak laztandu eta beraiekin
Egingo dugula larrutan. Garai zaharretan bezala.
«Meslay kaleko zakurrak sei urte bete berri ditu»
Esan du egungo Ingalaterrako Erregeak. Saul,
Walter Scott etorri da zutaz galdezka. Eta.
Zapatak lokaztuta zituen.

BINGO

Atseden hartzeko garaia ailegatu dela pentsatu
Baduzu, kosta egiten zaizu orain arrazoiak bilatzea.
Ez pentsa, ezin duzu askoz gehiago egin Bruc kaleko
Taberna honetan. Iluntzeak gustatzen zaizkizu.
Homelessek aterpe berriak asmatu dituztela kontatu
Dizu edonork eta lehenengo aldiz bizi hau noiz
Amaituko den galdegin diozu zeure buruari. Triste
Egon zaitezke, atsekabeturik, baina baduzu
Aurreztutako dirua, komiki bilduma ugari
(Amerikanoak) eta pelukerietako errebistak. Egizu
Zeozer askatasunez, zeren etsita sumatzen
Zaituztenean orduan egin beharko baitiozu aurre
(Egingo duzu) benetan. Txirrindulari batek bere
Norabidea zehaztu du keinu batez. «Hara,
Mendebaldeko hiri bat, aita». Horrela egiten da
Hegan paraje hauetan, usoak akabatu beharko
Liratekeen soinu kirrinkariak dira, eta orduan, zuk
Zer desira duzu zehazki? Idatz ezazu inoiz lortuko
Ez dituzun xedeen zerrenda eta postaz bidali
Ezagutuko ez zaituzten lekuren batera. Begira
Motoristen kasko koloredunak, polizia

Uniformatuak (berriz ere) aukera bat gehiago
Eskatuz, arren. Eliza zaharra ez dago urrun, antzina
Ez nuen gehiegi maite izan, baina gaur ez naiz bere
Aurrean paratzeko gauza. Kemenik gabeko izakia
Naiz. Bigarren astea da ez duzula ikusten, eta hala
Ere, telebistari begira jarraitzen duzu, zenbat
Garagardo ordaindu beharko dituzun axola gabe.
Antzina bingoan xahutu ahal zenituen gaizki
Pagatutako soldatatxo haiek. Lagunek etzidamuko
Egunak ahaztuak zituzten eta dena zen posible
Bihotz gabekoentzat. Kale bazterrean autobus bat
Matxuratuta ikusi eta sirena hotsak entzun dituzun
Arren, ez duzu deus egiteko asmorik. Llurian bi
Maitale ohik baikortasunez begiratu diote elkarri
(Badakizu), zer egin jakingo balute... Egia esan,
Ez dakizu atzera edo aurrera egiten ari zaren.

PEEL

Norbaitek bakea aipatu du eta algaraka hasi
Naiz dorpeki. Miradorearen koloreak pitzatzen
Ari dira, eskaileretan eseri direnek «ez dizuet
Sinesten». Bi emazteki aldi berean maitatzea
Bezala, hotzak nago, ene sinesmen oro
Arbuiatzeko prest. Hauteskundeak gaueko
Sesioan (Peel) grabatu dituzte aurten,
Garaileen negarrak, galtzaileen protesta
Ozenak eta nire galdera errepikariak. Inork
Ez die hirian ezkutatzen diren animaliei
Jaramonik egiten, basatiegiak direlako agian,
Errebeldeak, bakartiak. Leku batzuetan
Anarkistak, surrealistak; ez dute zentzurik,
Beren suizidioa garbi ikusten duten arren.
Liburu surrealistak, jaki anarkistak merkatuan
Gramoka artista ausartentzat. Yoyesi galdetu
Diote borroka armatuaren porrota zein
Magnitudetan neurtzen den. Gora begiratu eta
Segurua ez izanagatik, zientzialariak ikusi
Ditu lurrean etzanda. «Zaurituak nork zaintzen
Ditu? Oinez egingo banu bidea?». Eraikin hori

Sozializatu nahi omen dute berriz, baina begira Errepidea, jauna. Gaur ere ez dakit zer egin, Patua da ene ekintza guztiak erabakitzen Dituena. Arrastaka biziko banintz agian Behingoz hitz egiteari utziko nioke. «Hau da Zuregatik egin dezakegun guztia».

LADY GODYVA

Joan dira Lady Godyvaren haurrak etxetik,
Zarata atera du euren ihes behartuak. Eta
Bart gauean gorpu konspiratzaileak ibili ziren
Leihoetan. Apustu egingo nuke arriskuaren
Alde, eta berriz, berriz bakardade erre hau.
Nagusiak esango dio «prest nago zuri
Laguntzeko». Pinguinoak. Baloi hori bat.
Iruditzen zaio ez duela sekula sexua ulertuko;
Argia piztu dezake eta ohean eseri. Horregatik
Hitz egiten du halako erraztasunez, «zuri zer
Iruditzen zaizu?». Hirurogeita hamarreko
Hamarkadan ez genekien zer egin, hiria
Hedatzen ari zen etengabe, iparra jan zuen
Bat-batean. Etxe haiek zahartu egin ziren,
Lorategietan sastraka itsuak, behinola
Haurrak jolasten ziren eremu haietan... Ezin
Duzu ezer eskatu jada, argi dago. Zenbat
Gerrate galdu beharko ditugu galdera hau
Ahanzteko? Agian ez didazu sinetsiko baina
Giro hits honetan sinesten ahal da izen,
Kontakizun handietan oraindik. Haurrak

Biluzik ikusten zituenean, galdu egiten zuen
Oharkabean hitz ederrekiko eta ipuin
Zoriontsuekiko konfiantza. Napalmak garai
Honetako ideia guztiak erre ditu, baina
Guztiarekin, leku honetan bizitzen jarraitzeko
Gogoa dut. Hara, autoen motor hotsa isildu dela
Ematen du. Sartu hemendik mesedez.

FREE MONEY

Horrela zegoen gauza: erre usaina sukaldetik,
Zaborra bazter guztietan, zarata ezezagun eta
Gogaikarri bat. Kim Gordonekin pentsatzen zuen
Emakume askok, beren joera sexualez galdetzeko
Modu bat. Planoak urduritasunez higitzen ziren
Batez ere abenida zabalenetatik pasatzen zirenean.
Dream It! esaten zuen neska gazte baten elastiko
Beltzak. Txakur bi ikusi zituen elkarri dorpeki
Haginka Quincy Street inguruko bazter ezkutu
Batean, baina amore eman zuen etsipenez. «Zer
Ezkutatzen dute hitzek?» xuxurlatu zuen. Horrela,
Argi berezia izan zuten egun haiek, izatez ez zen ke
Ilunaren eraginik sumatzen ia eta jouissance gakorik
Gabe idazten hasi zen jendea. Ezkontzak,
dibortzioak,
Manifestazio jendetsuak, inaugurazioak. «Poeten
Kontra borrokatzeko prest gaude» esan zuen K-k,
Aurrez egindako galderari erantzunez bezala. Orain,
Muga guztiak ezabatu zaizkigula, heriotzaz
Mintzatzeko gogorik ez dugula, oroitzapenak egia

Ote diren pentsatzen ari naiz. Agian berak ere izan du
Inoiz iraganarekiko mesfidantza eta beste zenbait
Ardura alferrikako. Bost urteko mutiko batek ezin
Zuen objektu zartatu horiek guztiek zer esan nahi
Zuten asmatu: Zer jartzen du hor? Eguzkiak erretako
Galtza gorriak, olanazko zapatila urdinak. Beste
Emakume bat kexu zen edozer gauzarengatik. Bizitzak
Aitzinera egin zuen etengabe, baina; zer egin
Zezakeen? Ikara sentituko du gaur egun zergatik ote
Den jakin gabe. Hesiek garai modernoen harridura
Sorrarazten dute, konfiantza handiegiz bizi dira.

HITZ MORTUAK

Egia da, erdeinua nabari zen euren aurpegietan,
Nahiz eta jende guztiak jakin ez genuela halakorik
Merezi. Bi mende aurreragoko kolorezko kutxa
Batean genuen konfiantza, ekilibrista batek bezala
Egiten zuena txistu. Arbolen okerdura ez zen aldatu
Azkeneko hilabeteetan, baina biluzik paratu ziren
Itsasertzean ustekabeari zirrikiturik laga gabe.
Telefono bat eduki izan bagenu agian dei batzuk
Egingo nituzkeen, beste aldera begira. Bitartean,
Berriro giro hori jasango ez nuela zin egin nion
neure
Buruari, posible balitz, itsasoari ere uko egingo
Niokeela. Untxiak eta zomorroak nire bizitzako
Enegarren izaki bilakatzeko prest zeuden, eguzki
Apalean, non zegoen nire soina? Hitz mortuak
Entzun ziren, naturak esanahiak ostu izan balitu
Bezala, baso honetan ihesbiderik izango ez bagenu
Bezala. Zenbait ekintzak aditzera eman zizkidaten
Beste zenbait oinaze artean ezezagun, eta espresio
Gabeko aurpegiak, eta kaioak edo putreak. «Barkatu
Ama, hazi egin naiz» esan zioten elkarri eta dena

Geratu zen agerian. Ura kubo erraldoi batzuetan
Garraiatu zuten, zaratarik atera gabe ia: eta horrela,
Garaipen berri bat aldarrikatzeko beste arrazoi bat
Lortu zuten. Ezin zen eraikuntzetan pentsatu,
zubien
Harrokerian; gazte zenduak ikusteko prest nengoen
Errepideetan, hainbeste jakingo zuten ezta? Eserita
Geratzen ziren denbora luzez; hurrengo egunean,
«Diru gabe gaude» pentsatuko zuten, zerura so egin
Barik, noski. Egunkarietan zinema izarren argazkiak
Azaltzen ziren egun haietan, eta orduan egin nuen
nik
Zin. Qualia, quality palmeren gerizpean. «Emakume
Izan nahi al duzu Charles?» galdetu zuen Arthurrek.
Hondartza hura zer zen, nola egin behar ote nion
Aurre; motz, bi, nor, ken, zer, sare.

ITSASOTIK GERTU

Berak egin dezake eta ez zaio gehiegi kostatuko (ez
Diruz, ez osasunez). Bero sapa honekin airea ere
Opaku bihurtu da eta oraindik geratzen diren landa
Etxeek borroka egiten dute hiriaren aurka. Lorategi
Txikiak, behiala ondo zainduak, burdin hesi
Barrokoak eta lur gorriaren lehorra; X belaunaldiari
Bizitoki bat bilatu behar izan zioten. Hor egiten dira,
Halaber, tertulia literario eta preliterarioak, testuak
Hobetu asmoz, dela narratzaile mota (orojakilea...
Fokalizazioak?), dela denboraren banaketa,
espazioa,
Eguraldia, koloreak, estiloa (...). Plastikozko aulki
Honetan eseri ohi da, adibidez, Joan. «Emakumea
Ezkaratzean sartu eta barrurago egitea desegokia
Litzatekeela oharturik, bertan geratu zen. Armairu
Zahar baten gainean bi lorontzi ikusi eta eskuineko
Eskuarekin arrosa bat eta hiru lili laztandu zituen.
Bi akuarela zeuden, bestetik, ezkerraldeko paretan
Zintzilik. Harro zegoen bezperan idazle famatu
Horrekin larrua jo izanaz, ez zuen bere senar edo
Semearengatik kontzientzia txarrik sentitzen batere.

Gizon bizardun bat iritsi zen etxearen barnealdetik».
Metroa hartzera abiatu da ni aurrez agurtu gabe
Jertse mehe bat jantzita. Usoak dira teilatuetan, kale
Bazterrean, harea gainean, errepidean hegan ezin
Egin. Zeren hemen, gautzen duenean esaldiek ez
dute
Zentzurik berreskuratzen, gauzen antzera, gehienez
Ere galderak egiten ahal dizkiete euren buruei.
Urruntzen ikusi dut, agian eskuinera jo eta bere
izena
Ezagutzen ez dudan kalexka batean sartuko da.
Sukar gogor bat zabaldu da airean oharkabean; nola
Esan?, zein kantu arrotzen bidez erdituko da
Gaurkoan arratsa? Bistatik galdu dut baina haatik ez
Naiz atsekabe berezirik sentitzeko gai. «Nik hil nuen
Kurt Cobain» entzun da gero Paraleloko taberna
Batean. Ezkerrera jo dut.

HEILIGENDAMM

Kamioi baten gainaldean besoak zabalduta
Ezkerraldera egin dugu bidegurutzean. Hurrengoan,
Eskuinaldera. Martxoaren 35a da. Ez dugu sekula
Jakin izan agur esaten. Nora, nola iritsiko garen
Zehazki jakin gabe zenbait material bildu dugu
Bazter batean, David Bowiek filmetan egiten duen
Lez (ilea moztuta). Ingurura begiratu dut desoseguz
(Arraroa bada ere), eta «hau Rostock da!» esan dut
Nire baitarako. Biolentzia politikoa zintzilikatu
Dute airean: terrorismoaren gramatika aldrebesa.
Espaloiei begira eman ditzakegu datozen egun
Guztiak; gauean, atseden hartuko dugu auskalo
Noren omenez. Ez ditut ikusten umeak kaleetan
«Bideoaren inozokeriak agian» aipatu du norbaitek
(Naroak). «Eztabaidarako prest egongo bagina...».
Gero esan diot, kapitalismoak garaituko gaitu.
Uraren presioak mozorroak itxuragabetu eta
Aurpegiko makillajea guztiz narrastu digu.
Nolanahi ere, aurrera egiten saiatu gara, nahiz eta
Gure xalotasunak ez digun askorako balio izan,
Balio izango. Adibidez margolari bat etor zitekeen

Bataila honen testigantza gordetzera, horrela agian
Hemendik urte mordo barru negozioa egingo dute
Gurekin. Baina kontsolamenduak zertarako balio
Dezake hemen? Eta gero gure kontraesanak aintzat
Hartzera behartzen gaituztenean munduko komedia
Negargarrienetan bahiturik amaitzeko? Arropa denda
Ireki berrietan gorri koloreko galtzak saltzen ari dira
Itxura denez. Nik (!) inguruko etxebizitza batetik
Datorren musika epela entzun dut kanpoaldean itxoin
Bitartean. Agureak eta atzerritarrak dabiltza kalean
Barrena betiko errutinari gogor atxikirik (eta zer
Iritzi duten ez dakigula). Eguraldi ona egiten du
Bainuetarako, esan dute irratian.

—4—

R.C

Bazen behin laborarien desesperoa garai postmodernoetan. Eta horrela aritu ziren Mary eta Jim etxe hartako portxean. Etorri zen, bakerozko sonbreiru bat eskuetan.

— Hi guys, what do you wanna do now?

Teilatua beltzez pintatu behar zuten, konponketa batzuk egin, garajea garbitu... Zer izan behar duen CO2 gehiegi irentsi izanaz hiltzea, eta hiltzea. Etorri zen, alkandorako goiko bi botoiak askaturik. Soro sail zabal haiek ez ziren hozteko ereindakoak, ez zuten bihurgunerik osatzen, ordenatuak ziren, aratzak. Eta kotxe bat pasa zen gero ondoko errepide lakar hartatik, ziztu bizian. Baina Jimek ez zion bere lana egitearri utzi, eskuak zikinduak zituen, izerditan, garagardo hotz bat edateko premian. Ez zen beste inoren arrastorik inguruetan. Etorri zen, berriz ere, Chevrolet beltz batean. Zerbait galdetu, hor nonbait abandonatua zegoen aulki batean eseri eta zigarro bat piztu zuen. Mary sukaldean sartu zen, agian baso bat uren bila, jateko zeozeren bila beharbada. Eguzkia etzatera zihoan eta etorri zen, enegarrenez, zerbaiten bila.

LEIRIS

Mina Loy iraindu zuen lehenik Arthur Cravan bezalakoa izan nahi zuelako. Horrelakoak dira gauzak, adiskide. Egurra pintatzen zen garai haietan, objektu arrotzak eraikitzen ziren, anai-arrebek gauzak nahastu baino ez zituzten egiten. Orain arriskuzko kirolak negozio bat dira, mesedez, Evander. Mike, barkatu, Marie Laurencin kendu egin dute zerrendetatik. Pintura usaina zegoen bazter hartan, hiru hankako aulki bi eta liburu horiztatuak lurrean sakabanatuta. Berez, magia egin nahi zuen, izpiritu ilunei hel egin, eta batek daki, Lautremontekin solastu. Inoiz ez da jakiten. Zeren giltza zabalgarri bat eraman zuen burdindegi batetik eta nola suntsitu pentsatzen aritu ziren denbora luze batez. Elkarri begiratu zieten nazkatu antzean, baina behingoagatik euren senak baretu zituzten.

— Andre! Barkatu, Andre —esan zuten denek batera, umiliazioz.

Ezin zuen sinetsi. Lepazpia haztatu zuen eskuineko eskuaz bekainak zimurturik zituela, baina azkeneko hitzak esatera zihoala, azkenean atzera egin eta ez

zuen deus aipatu. «Beste zerbaiten bila nenbilen», pentsatu zuen kalean.

P.

Arratsak hiri osoa horiztatu duen arren mendebaletik, jendeak kalean jarraitzen du. Gaur ez dira etxera joango. Zirkuluak osatzen dituzte bidegurutzeetan eta ingurura adi so egiten dute, badaezpada. Badakite zerbait egiten ari direna baina arazo bat dute. Taberna batean albistegiari begira jende andana bildu da, noizbehinka oihuren bat entzuten da, biraorik. Norbaitek liburu baten titulua ahantzi du eta gogorarazten ahalegintzen ari da; beste bat, mende honetako truke balioaren bilakaeraz mintzo da. Marx aipatu du. Nolakoa da gure gizartea? galdetu du despistatuta dabilen batek. Hau eta bestea. Gero zoro bat etorri da Apollinaire ikusi duela esanez pasieran. Badirudi halako bake batek bildu duela dena, ez dakigu zer gertatuko den bihar. Inork ez du zubiena aipatu.

ORAIN

Lehen, bederen, ez zen ibiltzen horrenbeste jende. Neguan, eskuak zamarrako poltsikoetan sartu eta behera begira egiten zuten aurrera. Londres hoteleko karelean eseri dira. Donostiako badian piratak ikusi zituzten.

— Hauek zer dira, zintzoak edo gaiztoak? —galdetu zuen planta serioa zuen gizon batek—. Nola esaten da euskaraz «malechores»? Gaizkileak?

Yahoo bilatzailearen lepotik barre egiten jardun dute olatuen poderioz jendea uretara eroriko zen bitartean. Urte bat lehenago, garai bertsuan ezagutu dute elkar. Sudurra laztandu dio ezkerreko eskuaz, eta barruan, oraindik, iskanbila da nagusi. Agur esateko tenorea iristen denean damutu egingo dira eta beren bizi tristea madarikatuko. Gazte bat bizkarraldeko tatuaia berria erakusten ari zaio neska bati. Bihotz arrosa bat. Zorabio gazteak. Berak ezin du, jada, denboraren iragaiteaz ezer berririk asmatu. Harantzago, orain sukaldeak saltzen dituzten denda dagoen lekuan, taberna bat zegoen heroinak eta dexidrinak funtzionatzen zuten garaietan.

BIDE BAKARRA

— Borroka da bide bakarra —esan du lurrera begira.

Kopeta ilundu eta sotoko egurrezko aulki batean eseri da alderantziz, eserlekuaren bizkarraldea bularrean paraturik duela. Argi foku beilegi bakarra eta horma zuri beltzatuak. Gizonezkoek mesfidati begiratzen diote elkarri, eskuak txaketako poltsikoetatik alde. Zeren egoerak kontrolpetik ihes egiten dienean orduan zaunka hasiko dira zakur oldarkorrenaren antzo. Ez dago leiho bat bera ere. Beren legea horrelakoa da.

SOBIETAK

Eta larrutan egin dute denak isildu direnean. Iruditu zaio giroan lerroak gurutzatzen zirela ezkutuan, eta agian bihar, sentiberatasuna aurkituko duela atzera. Musika entzun da alboko gela batean, baina seguruenik, horrek ez du zerikusirik. Ez horrek, ez eta zimelduko diren liburu guztiek ere. Hala da, Sobietar Batasuneko historia ikertzen dihardu, eta orain Sobietek boterea galdu zutenean bezala sentitzen dela aipatzen du edozein momentutan. Existitzen ez diren apalategiak imajinatu dituzte beren aurrean. Traktoreak bide ospeletatik, nekazariak elkarri kontuak kontatzen eta ume moko bat argazki ttipi bati begira plaza huts baten erdian. Solidaridat Mit akordatu da sudur punta maitekiro laztantzen zion bitartean. Zertarako egiten du hau guztia? Zer espero dezaket? Altxatzekoa egin du baina zerbaitek geldiarazi du bat-batean. Beti egongo da zerbait esateko, bestela zergatik otutzen zaizkigu gauza hauek? Orain ohartu da; leku horretatik bere burua ikusteko gauza baino ez da.

GORRIZ

Pakistan milaka kilometrora geratu da. Zoru lakarrak imajinatzen ditu askotan ohe bazterrean esertzen denean. Bai, gorriz jarriko dute pasteleriako afixa, bere metro linearen omenez.

— Poliziek ez dute gauza gehiegi ulertu —esan du gaztelera ezin egokiago batean—. No tenemos ya ninguna salida.

Egarri izanagatik kalera irten da eta berriz nabaritu du giro ozpindu hori, zelatarien begiradak trabeska. Minduta sentitzen da antena parabolikoa mugitu ondorengo minutuetan; bere herrialdera itzultzea, ordea, ezinezkoa da jada. Zintzilik zegoen izara bat erori da laugarren pisutik eta kaja erraldoiak garraiatzen ari diren hiru morroiri bidea oztopatu die. Bere gorputza neke da, ez dauka albiste aldrebes horien kontra egiteko kemenik. Bizitza ez da hain ederra, konprobatu du nekatuta. Gaua noiz eroriko esperoan da jendea, tristeenak dendetan pilatu dira. Pintada berri bat ikusi dute, «Sistema bukle batean sartu da» jartzen duena katalanez.

IX

Amildegi bat ikusi zuten beren muturren aurrean. Hatzekin airea tirokatu zuen Gorkak eta buruz bera etzan ziren besteak. Haurtzaroak, agian, egun haietako kolore bera izango zuen eta inor ez zen enteratu. Gela hartan utzi dute ispilu bat, adorno gabea, multinazional ospetsu batean erositakoa. Gainontzean, ez zekiten oso ondo nora so egin, espezialistaren bat beharko zutela iradoki zuen norbaitek. Baina ekaitza sartu da. Harkaitzak, eraikuntzak, ideiak herrestan joan ziren maldan gora. Zer nahi duzue esatea? esan du ahots beretzat ezezagun batek. Ez du ezer ulertzen eta azkenean, nola deitzen zioten galdetu zuen.

— Ptix.

ORDUAK

Bartzelona, 2008ko martxoa

Kotxea hartu eta hiriaren ekialdera eraman dute. Bero sapa hasi du honezkero. Atzealdean objektu mordoa zegoen; poltsak, koadro bat, liburuak, cd-ak... Lekua egin behar izan du. Isilik egin dute bidearen erdia eta gero ezin izan dute elkar ulertu. Telefonoz abisatu zioten lanera itzuli behar zuela azken orduko ezusteko bat zela medio. Lehenago erabaki zuen hurrengo udazkenean atzerria utzi eta jaioterrira itzultzea. Zerbait galdetu dio Xavik.

— Badakizu, orain zinegotzi ohiak eta halakoak dira helburu —aipatu du leihotik begira.

Sarritan egitasmoak ez dira espero bezala joaten, indar gehiegirekin egiten dugu errealitatearen kontra.

— Tematia naiz —aitortu du.

Gero pentsatu zuten mugimendu altermundista ez ote den burgestxiki gazteen azkeneko inbentoa. Neohippiak, ordea, zoriontsuak direla gogorarazi du hatz koskorrarekin mahai gainean jotzen zuen bitar-

tean. Eta zenbatzen hasi ziren: Seattle, Davos, Praga, Bartzelona, Kopenhage...

— Ez dakit.

Orduak azkar pasa dira eta dena jasotzeko garaia iritsi da jada. Batzuk lurrean botata geratu ziren eta besteak harat-honat ibili dira. Bueltakoan, abesti ezezagun batean jarri du arreta.

REDHEAD

Babesgabeen izenean mintzatu da lipar batez. Betaurrekoak jantzi ditu. Vogart. Bost euroko bale bat atera dut poltsikotik baina eguzkiak erreflexua egiten zuen kristalean. Triste bizi direlako egiten dute so pareko eraikuntzara, zigarro izeki gabea ahoan. Ilundu duenean kale beltz batean sartu eta musika entzun du redhead; inoiz lorik egiten ez duen jendea dago eserita leku horretan. Argi gorriak ikusi ditut eta geratu egin naiz. Beste morroi bat ailegatu da, zerbait sartu du jaka barneko poltsikoan. Jonek taxi bat hartu du, etxera bueltan doa, galdu du esna jarraitzeko esperantza. Bi. Zintzilikatu genuen kartelak hor darrai baina hala ere inork ez ditu zalantzan jarri teoria zientifikoak. Masa geldiezin bat bezalakoa da, edozerk balio dezakeela ematen du. Zera pentsatu du. Isiltasuna bidean da. Hiru. Bat. Espazioan gauzak sakabanatu dira.

ENKANTEAK

Paraxutak lurreratu ziren Bartzelonan autobus batzuen gainean. Greba ez zen arrazoi bat, alde egiteko garaia zen.

— Beranduago itzuliko gara —esan du norbaitek baikor—, agian hemendik hogei urtera.

Eta zeruari begira jartzeko tenorea ote den galdetuko lukete emakumeek honakoak beste garai batzuk balira. Motozikletak azkarrago hartzen zituzten errebueltak euria egiten zuenean. Berez zuten desabantaila konpentsatzeko era bat agian. Traste handi horiekin zer egin ez dakitela sirena hotsak entzun dituzte. Ez da sorpresa bat. Gauza asko dago oraindik galtzeko. Oinezkoak olgetan, itsasertzari begira, iluntzeak berdin izango balie bezala. Enkanteetan salgai jarriko dituztela hemendik gutxira aipatu du norbaitek.

— Ez da posible —entzun zen atzealdean.

Instituzioak gogor jarri dira azken boladan eta ezer gutxi egin daiteke jada. Ondoeza ez da hitz egokiena. Azkenekoak jaio eta azkenekoak bukatu.

90

Batzuetan bizitzak ukitzen zaitu emaro. Gauerdia iritsi eta atzera itzultzeko gogorik ez. Halako batean maskara batzuk topatu nituen lurrean txiki eginda. Nor ibili da hemen? Xomorroak, iguanak, katagorriak. Abiatu naiz leku epelago batzuen xerka eta ez ditut atzera-begiradak baino aurkitu. Ez da hau merezi duzuna. Gehiago eduki beharko genukeen guretzako. Horrela, urrezko soinuakz entzun ziren bozgorailuetatik; badakizu, literatur kritika krisian da. Baranda batean helduta jarraitu zuen Norak.

— Zuzi kartsu bat ematen dut urrutitik, monumentu turistiko bat.

Orpoak haztatzen zituen beti udaren etorrerarekin batera. Ene, emakume batekin akordatu da batbatean; laurogeita hamarreko hamarkadako neguak. Zoli imajinatzen nuen ene burua ardaila ero horren erdian. Zaude, oraindik zerbait egin dezaket zugatik. Ez du aurkitzen, ordea, lokirik honezkero.

KOLOKAN

Herdoilduta zegoen mahai baten inguruan eseri ziren Nuria eta Monica. Eskailera batzuk daude ezkerraldean behera jaisteko.

— Ez dugu nahi —eta ke bafada bat bota zuen.

Liburu horiztatuak orri batzuk zintzilik zituen, berrehun eta hogeita batgarren orrialdea faltan.

— Non arraio dago berrehun eta hogeita bigarrena? —Monicak.

Azalean jartzen zuen letra handi urdinez: *Voyage au Congo*. Altxa egin da bietako bat (soineko berdeduna) eta etxe barrura egin du melodia ezagun bat txistukatzen. Landare horrek japoniarra zirudien, behealdeko adarrak mugitzen zitzaizkion bakarrik; giroa hazten hasia zen. Kolokan dago edalontzi bat. Arkaikoak iruditu zitzaizkion zenbait esplikazio eta ez zegoen hura guztia jasateko prest. Horrela aritu dira denbora batez. Leihoetatik geroz eta argi gutxiago sartzen ari zen eta gizon batek amore eman zuen.

— Ezusteak bizitza honetako parte dira.

Sukaldea artean berritzeko zegoen. Opari batekin eskuan ahoskatu du gaur estreinakoz bere izena.

TOM BADOA

Tom badoa beste herrialde baten bila. Orain aste batzuk zoriontsu dela oroitu eta goibel jartzen zen berehala. Bere burua ikusten saiatu da estazioko kristalen islan baina gizon bat jarri zitzaion aurrean. Poltsikoan eskua sartuta zerbaiten bila ari da. Udazkena zen harrezkero, eguzkiak presaka egiten zuen behera.

— Ezin dut —esan zion—. Ez naiz pentsatzen duzuna asmatzeko gauza.

Iragana presentea bezain ankerra denean, nola esan, lekuak dira geratzen diren aukera bakarra. Banku batean eseri eta ezkerreko eskuko hatz lodi eta erakuslea ipini ditu kokotsean. Egunkarietako titularretan pentsatu zuen gero. Gazte izateari utzi eta hizkuntzarik gabe geratu ginen. Orratzezko ordulari handiari so egin dio beltzurituta.

N.Y (2)

Galtzak uzten dituzunean leku ezezagun batean ahaztuta, gauza gehiago ahazten dituzu benetan. Puska baterako gelditzeko asmoa zenuen bakarrik, baina Pau iritsi zen ezustean. N.Y.n gitarra soloen inguruko eztabaida horiek zer dute ikustekoa poesia garaikidearekin? Esadazu fundamentu gehiagoko zerbait, arren, bi hitz ezezagun gutxienez. Eta asimilazioaz berba egiteak beste behin ere soluzionatzen al du ezer? Aldatzen al dira gauzak?

— Gure ezinbesteko porrota, gure etsipen natura-la aldarrikatzea da geratzen zaigun bakarra —entzun zen gela batetik.

Eserita, zangoak gurutzatu ditu, eskuinekoa ezkerrekoaren belaun gainean pausatuz. Izterra haztatu eta isilik geratu da.

— Guk jasotako errietak berantiarrak izan dira.

Apalategitik liburu bat hartu dute, bertan zerbait idazteko gogoa sartu zitzaion. Ez duzu orain metxeroa aurkitzen. Zen.

L.R.C

Laura Ruiz Casado esnatu denean egun horretan egin beharrekoa errepasatu du mentalki. Euria ari du etengabe eta errepide bazterreko jatetxeetan moko okerreko demokratek topa egiten dute oraindik. Hogei urte ondoren ere topa. Topa. Trenbidea laiozten ari da alde banatako zuhaitzen haztearen ondorioz eta Maialenek egunkarian irakurri duen telefono zenbaki bat markatu du.

— Heldu da ordua —esan du barre batean.

Denetarik entzun behar izan nuen txikitan. Poltsa hartu du. Bizkarraldera eraman. Erabaki du atzo Beñatek esandakoa ezezko erantzuntzat hartu behar duela.

— Tipo hau idiota da —esan du portalean inork entzun ez badio ere.

Garo sailen higidura epel baina taigabeen antzera nahiko zukeela bizi oinaze-erresuma belun su-leizezko honen partez. Aldez edo moldez. Zu, biziaren zentzua ene amodioaren printzetan isurtzen duzun horrek; zu, ene ametsak koloreztatzen dituzun gar

eta su, beti zu, ene zu. Zeruko zelai soiletan dager ene bihotzaren samina.

Atea kanporantz bultzatu eta hirigunerantz abiatu da.

— Erabat —esan zion Laurari Anak leihotik.

Hitz ezezagun bat xuxurlatzeko puntuan egon da baina azkenean ez du ezer esan. Isilik jarraitu zuen aurrera.

STELLA

Iñaki Losada berrogeita bi urteko morroi gogorra zen, ezkondu gabea, diskoteka bateko atezain gisa ateratzen zuen bizibidea. Pastillak jaten ditut maiz. Harreman sexualak jende ezezagunekin baino ez ditu izaten. Parking zabal bat zegoen eraikuntzaren kanpoaldean; orain erabat hutsa dago, baina auto koloredunez betetzen da aldiro-aldiro. Bidean geratu ziren orain beren izenak ahantzi dituzten abestiak, patioko hartxintxarra, zenbait egun ilun eta euritsu, Frank Stella-ren koadroak. Ama geratzen zaio soilik eta asko maite duela esaten du berari buruz mintzatzen den bakoitzean. Festa bat antolatu dut itsasora begira dagoen apartamentu batean. Gau eztia egiten duela esan zuen gizon altu batek. Non dago komuna? Polizia etorriko zen egunsentian galdera batzuk egiteko. Autobusa hartu du etxerantz. Logura dira eta ez dute biharko egunean pentsatzen. Beste espaloiko emakume bati begira geratu da Losada.